

Mexikotik dator notizia

1994. Mexiko ustez otzandu eta baretu batean, Salinas de Gortadi presidente neoliberalak sinatu berria du TLCAN- NAFTA ituna. Amaitutzat ematen da Pancho Villa eta Emiliano Zapataren iraultzaren hondarrean Lázaro Cárdenasek baliabide energetiko eta indar produktibo nagusiak nazionalizatuta eraikitako ongizateko estatu paternalista eta abertzalea. Kapital transnationalei (eta bertako oligarkiei) parez pare irekitzen zaizkio atea ondare nazionalak pribatizatze eta ustiatzeko.

Supituki, Emiliano Zapata ikur Lacandona oihanetik beren buruak mozortuta daramaten indigenek osaturiko armada batek (EZLN) San Cristóbal de las Casas bere egiten du, *Lurra eta askatasuna!* aldarri. Armada horrek ez du zer ikusterik ohiko *gerrila*-rekin. Izaera indigena du eta bere helburua ez da Estatu boterea bere egitea, botereari aurre egitea baizik.

Eta gu harri eta zur.

Harez geroztik EZLNk bidea egin du Chiapas lurraldean, komunitate indigenen auto-antolakuntza babestuz eta komunitatea helburu duen filosofian oinarrituriko *obedecer mandando* (aginduz obeditu) xedez eraturiko gobernu autonomoak (caracolak) osatuz. Alabaina ez da mugatu liberatu-



Joxe Iriarte, *Bikila*

IDAZLEA

Mexikok amildegiaren ertzean dagoen traza guztiak ditu. Instituzioak pipiak janda daude; ustelkeria da nagusi politikan eta herrian miseria

tako txokoan goxo egotera. Gai izan da *La sexta* deituriko internacional sarea sustatzeko, baita egoeraren arabera Mexiko osorako ekimenak antolatze ere aldian-aldian. 2006an izugarritzko arrakasta izan zuen *La Otra Campaña* Mexiko osoan era askotariko komunitate eta talde desberdinen laguntza eta sostengua lortuz.

2016. Mexikok amildegiaren ertzean dagoen traza guztiak ditu. Instituzioak pipiak janda daude; ustelkeria da nagusi politikan eta herrian miseria; baliabide naturalen ustiaketa basatia aurrera doa komunitateak deseginez; gizartea militarizatu egin da narkoei aurre egiteko aitzakiaz, eta indar parapolizialen jazarpen hiltzailea nonahi dago. “Emakumezidioa” ahaztu gabe.

Berriro, ustekabean, ohiko abstentzioa alde batera utziz, izugarritzko lurrikara politikoa eragin du EZLNk eta CNIk (Indigenen Biltzar Nazionala) hauteskundeetan parte hartuko dutela adierazi izanak, komunitate auto-antolatua oinarri, presidentegaia emakume indigena izango dutelarik.

Eta gu aho bete hortz.

Eliteen erantzuna. Mespretxua, arrazakeria eta misoginia. *Castillas*¹ (gaztelaraz, alegia) erdipurdi hitz egingo duen emakume ezjakin bat presidente gai? Izorratuenen, berriz, poza eta itxaropena.

⁽¹⁾ Galeano (lehen Marcos) subkomandanteak ohiko zuhurtziarekin erantzun die: emakume horrek agian ez du *castilla*-z egoki hitz egingo, baina argi eta garbi bai, eta denok ulertzen dugu. Zuen erretolika ikasia, aldiz, hutsala, iluna eta ulertezina da herriarentzat. Horra diferentzia! ■

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

www.bizkaia.eus

